

### **BERTARATU DIREN ZINEGOTZIAK**

LORENZO ZUBILLAGA GOICOECHEA  
IÑAKI ELIZALDE ZUBILLAGA  
MARIA CRISTINA VAL SARDON  
AITZIBER OTAMENDI ECHARRI  
ANDER PRADOS OTAMENDI

### **BERTARATU EZ DIRENAK**

NEREA YEREGUI BALDA  
IGOR OTERMIN EGUIA

### **IDAZKARIA**

Joanes Aleman Olo

Betelun, Udaletxeko udal  
bilkuren gelan, 2023ko  
irailaren 20an arratsaldeko  
zazpi eta erdiak direnean,  
ondoan aipatzen diren  
zinegotziak elkartu dira,  
Lorenzo Zubillaga  
Goicoechea alkatea buru dela  
eta egintzaren fede ematen  
duen Joanes Aleman Olo  
idazkariak lagundurik.

Udal bilkura dagokion deialdiaren ondoren egin da, erreglamentuan ageri den aurrerapenarekin eta deialdia beraren eta gai zerrendaren ale bat udaletxeko iragarki oholean iragarri ondotik.

Ohiko izaera duen bilkura irekirik eta lehendakaritzak publikoa dela esanik; Idazkariak bilkura hasteko behar den zinegotzi kopurua bertaratu dela egiaztaturik; gai zerrendan diren ondoko puntuak aztertzeari ekin zaio.

## **1. 2023-08-30EKO UDAL BILKURAKO AKTAREN ONARPENA**

Deialdiarekin batera banatu den 2023-08-30e ko bilkurako aktaren inguruan udalbatzako kideren batek zerbait esateko duen galdetu du lehendakariak.

Zinegotzi bakar batek ere ez du deus adierazi.

Lehendakariak akta bozkatzera ekarri eta udalbatzak aho batez onartu du.

## **2. ALKATEAK EMANDAKO EBAZPENAK:**

### **1. Concepción Ponce Burgos**

Beteluko Udaleko alkateak, Lorenzo Zubillaga Goicoecheak, 2023ko abuztuaren 25ean, 63/2023 Ebazpena onartu zuen. Gaia: Concepción Ponce Burgosek Beteluko 2. Poligonoko 81. Lursailean dagoen eraikineko leihoak aldatzeko eskaera dela eta eskatzaileari zenbati puntu argitzeko eskatzea.

### **2. Iñaki Aguirrezabal Bazterrica**

Beteluko Udaleko alkateak, Lorenzo Zubillaga Goicoecheak, 2023ko abuztuaren 31n, 64/2023 Ebazpena onartu zuen. Gaia: Iñaki Aguirrezabal Bazterricari hirigintza lizentzia ematea Beteluko 2. Poligonoko 53. Lursailean portxe bat eraikitzeko.

### **3. Ezkontza zibila egiteko eskumenen eskuordetza**

Beteluko Udaleko alkateak, Lorenzo Zubillaga Goicoecheak, 2023ko irailaren 1ean, 65/2023 Ebazpena onartu zuen. Gaia: Beteluko Udaleko zinegotzi Ander Prados Otamendi eskuordetzea 458/2023 espediente zenbakia duen ezkontza zibila egiteko ahalmena izan dezan.

### **4. Garikoitz Uitzu Goikoetxea**

Beteluko Udaleko alkateak, Lorenzo Zubillaga Goicoecheak, 2023ko irailaren 14an, 66/2023 Ebazpena onartu zuen. Gaia: Pilota eskolari frontoia erabiltzeko baimena ematea irailaren 14an 17:00etatik 19:00etara pilota entrenamenduak egin ahal izateko.

### **3. BETELUKO 2. POLIGONOKO 30. PARTZELAREN XEHETASUN-AZTERLANA BEHIN BETIKO ONARTZEA**

Copropietarios Goi-Arri sustatzaileak Beteluko 2. Poligonoko 30. Lursailean igogailu bat jartzeko alineazioen aldaketa eskatu zuen xehetasun azterketa aurkeztuta.

Dokumentazioaren inguruan hainbat errekerimendu egin ondoren 2023ko ekainaren 12an aurkeztutako xehetasun azterketaren aldeko txostena egin zuen udal arkitektoak 2023ko ekainaren 15ean.

2023ko uztailaren 21ean egindako osoko bilkuran hasiera batez onartu zuen Beteluko udalbatzak xehetasun azterketa.

Nafarroako Aldizkari Ofizialaren 165. Zenbakian argitaratu ondotik, 20 egun baliodunean egon zen jendaurrean. Epe horretan ez du inork alegaziorik egin.

Lurraldearen antolamenduari eta hirigintzari buruzko foru legearen testu bategina onesten duen uztailaren 26ko 1/2017 Legegintzako Foru Dekretuaren 74. eta 79. Artikuluetan ezarritakoari erreparatuta

Toki erregimenaren oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 legearen 47.2.1) artikulua ezarritakoa ikusita, udalbatzaren kide legalen gehiengo osoz, bertaratutako guztiek adostasuna eman baitute, zera onartu dute:

LEHENENGOA: Copropietarios Goi-Arri sustatzaileak Beteluko 2. Poligonoko 30. Lursailean igogailu bat jartzeko alineazioen aldaketa egiteko aurkeztutako xehetasun azterlana behin betikoz onartzea.

BIGARRENA: Akordio hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea eta Nafarroako Gobernuko lurralde antolamendu eta hirigintzan eskumena duen Departamentuari bidaltzea.

HIRUGARRENA: Akordio hau sustatzaileari jakinaraztea.

#### **4. ENERITZ OTAMENDI OTERMINEN AINTZINATASUNA**

Eneritz Otamendi Otermin Iratzarri Elkartean hiru urtez kontratatuta egon dela eta (2020ko irailaren 1etik 2021eko abuztuaren 31a arte eta 2021eko irailaren 1etik 2023eko irailaren 1era), antzinasuna kobratzen hasi daitekeela adierazi dute Ana Belen Arraras Zabaleta eta Eneritz Otamendi Oterminek, Iratzarri Elkarteko idazkari eta zuzendariak, aurkeztutako idatzian.

Iratzarri Elkarteak izan da Beteluko Udalaren Sorgintxo haur eskola kudeatu duena aipaturako denboraldian.

Beteluko Udalak Iratzarri Elkartearekin sinatutako kontratuetan agertzen denez, kontratuaren prezioaren barnean, Udalaren azken ordainketaren parte dira langileen beste gastu batzuk, hala nola langileen antzinasuna, etab.

Hau ikusirik udalbatzak honakoa erabaki du:

Eneritz Otamendi Oterminen antzinasunaren ondorio diren gastuak Beteluko Udalak bere gain hartzea.

Alkateak akordioa bozkatzera ekarri eta udalbatzak aho batez onartu du.

#### **5. JASOTAKO IDATZIAK**

##### **1. Sorkunde Sotil Arrizabalaga**

Sorkunde Sotil Arrizabalagak autobusa eskolako ate handiaren ondoan dauden bi plaza horietan uzteko baimena eskatzeko idatzia aurkeztu du.

Hau ikusirik udalbatzak honakoa erabaki du:

Idatzian eskatutako tokian autobusendako plaza sortzea. Horretarako behar bezala seinalatuko da.

Alkateak akordioa bozkatzera ekarri eta udalbatzak aho batez onartu du.

#### **6. FAKTURAK**

Animsa	F. A 266	506,63
Animsa	F. A 265	1.839,37
Irabia Control de Plagas	F. N-0811-2023	2.587,20
Irabia Control de Plagas	F. N-0810-2023	266,24

Bandomovil	F. BM/2023/0985	96,80
Miguel Ramon Olano Zabaleta	F. 54-2023	1.520,24
Miguel Ramon Olano Zabaleta	F. 53-2023	90,75
Carlos Ibáñez López	F. E 000383/22	283,44
Aliexpres	Disco rueda amoladora, cable adaptador	13,73
Iluminashop	Bombilla LED, foco proyector	19,87
Exclusivas online sociedad limitada	Powery batería de gel	22,50
Goierer	Eskolako abuztuko energia elektrikoa	383,28
Goierer	Udaletxeko abuztuko energia elektrikoa	279,78
Serlimpia SL	F. 23053	338,80
Codisna	F. 23135	157,30
Hortalizas Etxeberria	Begonia sempreflorens M-11	7,75
Iberdrola	F. 09230906010012115	10,11
Venus M Campos Walsh	F. V00125	123,42
Iberdrola	Kale Nagusia 2 ezkerreko abuztuko energia elektrikoa	15,57
Venus M, Campos Walsh	F. V00126	2278,83
Iberdrola	Abuztuko argiteri publikoa	281,66
Miguel Ramon Olano Zabaleta	F. 49-2023	583,92
Miguel Ramon Olano Zabaleta	F. 50-2023	226,88
E- Registradores	Urumea nota simple	19,90
Beteluko lagunartea	2023ko festetako edaria	334
Miguel Ramon Olano Zabaleta	F. 51/2023	496,10
Codisna	F. 23476	181,50
Wikai	F. 1/15775	70,10
Discom Redes Telecomunicación SL	F. 32332	1.439,90
Hortalizas Etxeberria	Substrato terrahum, abono oveja	26,60
Angelines Carrillo Ruiz	F. 12	90,00
Taxilon	F. 873	106,00
Chocarro y Urmeneta SLP	F. Emit 2322	2.940,30
<b>SORGINTXO HAUR ESKOLAKO LEHEN ZIKLOA</b>		
Angelines Carrillo Ruiz	F. A 2/2023	6,49
Rosa janaridenda	Ekaineko garbiketa materiala	22,80
Rosa janaridenda	Ekaineko janaria	24,91
Rosa janaridenda	Uztaileko garbiketa	15,80
Rosa janaridenda	Uztaileko janaria	14,90
Angelines Carrillo Ruiz	F. A 1/2023	66,30
Neuk (kutxatik)		42,00
<b>OSOTARA</b>		17.831,67 €

Lehendakariak fakturak bozkatzera ekarri eta udalbatzan diren kide guztiek aho batez onartu egin dituzte.

## **7. GALDERAK ETA ESKAERAK**

Ez da ez galdera ez eta eskaerarik egin.

Arratsaldeko zortziak eta laurden direnean, bilkura amaitu eta altxatu egin da, idazkaria naizen honek ziurtatzen dudana.